

IDAZKARI NAGUSIARI

HIRIAN ZEREMONIA ZIBILAK EGITEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean zeremonia zibilei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Estatu konfesional eta laiko batean, pertsonen eta elkarten askatasun ideologikoa eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dute erakundeek. Hil ondorengo hiletak edo omenaldi zibilak egiteko behar soziala herritarrei zeremonia duin eta pertsonal bat eskaintzeko beharretik sortzen da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Konfesio erlijiosoek liturgia-ekitaldiak egiteko espazioak dituzten bezala, Udalak behar sozial horri erantzun behar dio. Horrela, EAJk eta PSEk beren udal programan esan zuten “donostiarrentzako zerbitzu berriak sortuko zituztela Udalaren hainbat espaziori erabilera berriak emanez, adibidez, ekitaldi ez-erlijiosoak egin ahal izango zirela Aieteko Jauregian Donostiako herritarrak hiltzen zirenean”.

Hala ere, hil honetako batzordean gobernuak adierazi zuen azkenean ezingo dela Aieteko Jauregia erabili horrelako ekitaldiak egiteko, ez baititu baldintzak betetzen irisgarritasunari dagokionean.

Azken asteetan, Miramar Jauregiaren erabilerei buruzko eztabaidan esan da jauregi horretako zatiren bat ere horrelako ekitaldiak egiteko erabiltzeko aukera egon zitekeela. Baina, Irabazi Donostia udal taldeak aurkeztutako interpelazioaren aurrean,

zinegotzi ordezkariek batzordean adierazi zuen hori ere ezingo dela gauzatu, tokiko erakundeaz gain beste erakunde batzuen mende ere badagoelako espazio horren kudeaketa, eta, hortaz, antza denez, aukera hori ere baztertu egin da.

Zeremonia zibilak egiteko tokiak prestatu behar dira, gobernu taldeak berak bere gobernu programan aitortutako behar sozial horri erantzun bat eman behar zaio eta. Horregatik, konponbideak eman behar dira; izan ere, legegintzaldi honetan hainbat ekimen aurkeztu diren arren, orain arte ez dago beste aukerarik mahai gainean. Hori dela eta, gobernu taldeari eskatzen diogu xede horrekin laga litezkeen instalazio publikoen zerrenda bat zehaztu dezala, bai eta lagapen horien erregulazioa ere.

Azpimarratu nahi dugu jadanik euskal geografian badaudela eskaera horri erantzun bat eman dioten hainbat udalerrri, eta horietako batzuek horrelako ekitaldiak egiteko moduari buruzko ordenantza propio bat egin dutela eta horrelako ekitaldiak egiteko tokiak prestatu dituztela jadanik hainbat herritan eta hiritan. Urrutira joan gabe, Bizkaiko hiriburuak berak onartu egin du horrelako omenaldi eta agur zibilak egiteko espazioak erreserbatzeko orduan erraztasunak ematea, "prestatutako toki batean hileta laiko bat izateko eskubidea" aintzat hartuta, Bilboko Udaleko Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien saileko zinegotziak berak gogorarazi duenez.

Horiek guztiak horrela, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio hirian agur zibilak egiteko prestatu daitezkeen espazioen zerrenda bat egin dezala hiru hilabeteko epean.
2. Donostiako Udaltzako Udal Gobernuari eskatzen dio herritarrek agur zibilak egiteko instalazioak erabiltzeko gida bat egin dezala.

Izpta.: Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.